



**iba  
ba**  
Ibaibe  
HERRI IKASTETXEA



# OTSAILLEKO OSPAKIZUNAK

2012



**iba  
ba**  
Ibaibe  
HERRI IKASTETXEA

TESTU MOLDATUAK

## KANDELERIO EGUNA (otsailak 2)

Otsailaren 2an bedeinkatzen dira kandelak elizetan. Batzuk kandela zuzenak eta beste batzuek kandela biribilduak (argizariak edo erretxinak) eramaten dituzte elizara.

Antzinako euskaldunek uste zuten kandela bedeinkatu horiek haiek eta haien ondasunak babesten zituztela:

- Ekaitz egunetan pizten zen kandela bedeinkatua etxea eta bertan bizi zirenak babesteko.
- Familiako norbaitek gaizo larria zuenean ere pizten zen kandela bedeinkatua sendatzen laguntzeko.
- Kandela kiribildu bedeinkatua piztu eta adarretan jartzen zen jo edo eraso zitzakeen edozein sorginkeri edo gaizotatik babesteko

Egun horretan ere, antzinako euskaldunek elizara zumezko erramuak eramaten zituzten bedeinkatzeko. Gero, erramu bedeinkatu horiek etxe inguruko soroetan jartzen ziren. Eta euren gainean, kandela bedeinkatuak. Horrekin, izan litezkeen arriskuak eta baita familiaren baserrian zein baratzean sorginen agerpena urrundu nahi izaten zen. Eta zumeak eta kandelak jartzen ziren bitartean “kandelerio” abesten zen.

*Allegro moderato*



Kan-de-le-ri - o le - ri - o a - txar-i ur - a  
da - ri - o, ma - katx - a - ri ma - da - ri:  
eu - tsi, Pe - ru, an - ke - a - ri.



## **SAN BLAS (otsailak 3)**

Otsailaren 3an, Kandelario egunaren ondoren, San Blas eguna ospatzen da. Euskal Herriko herri gehienetan mantentzen da bedeinkazio bereziak egiteko ohitura hau.

Ohitura hau da: erositako gozokiak, opilak, erroskilak eta kolore desberdinetako hari berezi batzuk elizara eramaten dira bedeinkazioak jasotzeko.

Hariak eta jateko gauzek aparteko indarra omen dute eztarriko minak eta gaixotasunak aldentzeko.

San Blas hariak bederatzi egun pasa eta gero erre egin behar dira gaitzarekin amaitzeko. Kandelario egunean hasi eta inauteriak arte etxe askotan tostadak egiten dira.



## AGATE DEUNA (otsailak 5)



Sizilian jaio zen III. Mendean, Erromako Inperioaren garaian. Historiak dioenez, Agate neskatxaren edertasunez liluraturik, Quinciano Siziliako gobernadore zenak bere emaztetzat hartu nahi omen zuen. Hark ezetza eman zionean, kartzelan sartu zuen eta hantxe galdu omen zuen bere bizia, oraindik gaztea zelarik, bere kristau fedeari uko ez egiteagatik. Euskal Herrian ospe handikoa dugu Agate deuna, bere irudia

esaera eta abesti herrikoi askori lotuta dagoelarik.

Suteen kontrako babesle eta bereziki, emakumeen bularretako gaitzen sendagile, ez dira gutxi bere izenean eraikita dauden baselizak eta ugari dira bere irudiak hainbat elizatan. Barakaldon ere Agate deunari dedikatutako baseliza dugu, Basatxu auzoan (Gurutzetan), Arroletza mendiaren magalean.

Agate deunaren eguna otsailaren 5ean ospatzen da. Bezpera arratsaldez herri gehienetan ume. Gazte zein nagusi taldeak kalera ateratzen dira eta aterik ate edo kalez kale ibiltzen dira abestuz.

Honetan beste ospakizun batzuekin zerikusia izan arren, diferentziak ere badira: beste ospakizunetan (Olentzero, Gabon Zaharra, Urte Barri, Erregeak...)abestiak aldaketarik gabe aspalditik mantendu diren bitartean, Agate deunaren bezperan taldearen gidari izaten den bertsolariak berak asmatzen zituen bertsoak. Gaur egun, egia izan, inon ez dela inprobisatzen uste dugu, aurretik ikasitako bertsoak abestu baizik. Beraz, ohitura honek bizirik irauten badu ere, ez du lehenengo "bizitasuna" .

Agate deunaren bezpera arratsaldez erronda hasten zen. Gidariak kanpaitxo bat eramaten zuen ate bakoitzaren aurrean taldekoek bildu eta kantatzeko adi egon zitezten. Eta gidaria kantatzen hasten zen: lehenengo bera bakarrik eta gero taldea, batak sarrera eman eta besteek jarraitu, makila sendoekin erritmoa markatuz.

## INAUTERIAK (OTSAILAK 17)

Urteko zikloen arabera inauteriak negukoan kokatzen ditugu, garai batean etxean egoteko aroa, lurra eta animaliak babesean lo egoten zirenekoa. Udaberriarekin esnatzen ziren hartza eta lurra eta ateratzen zen gizakia etxetik. Eta inauteriak ospatzen ziren urte berriari agurra emateko.



Historian zehar, bere ibilbidean hainbat elementu jaso eta gorde ditu, eta halaber, denbora zeharkatuz gaurdaino, aldakuntza, fusio eta esanahi aldaketak jasaten joan da (ziurrenik biharkoak ere ezberdinak izango dira).  
Egia esan leku askotan inauteria mozorro festa soil bat bihurtu da.

Baina... noiz dira inauteriak?

Inauteriak, Korpus egun eta bestelako zenbait jai-egun, Aste Santuarekin batera, eliza katolikoaren egutegi liturgikoaren arabera ezartzen dira urtero.

Egutegi liturgiko horren berezitasuna da ilargiaren zikloak kontuan hartuta ezartzen dela. Pazko-igandearen arabera ezartzen dira egutegi liturgikoko datak. Eta, noiz da Pazko-igandea? Ba, udaberriko lehenengo ilargi betearen ondoko lehen igandea izan ohi da.

Inauterietako Hausterre-eguna, asteazkena, eta Pazko-igandearen artean 40 eguneko Garizuma izaten denez, Pazko-egunetik 40 egun atzera egin eta inauterien bukaera izango dugu, eta ondorioz inauterietako jai egun guztiak ezar daitezke.

Urte hauetako inauterietarako datak:



Urtea	Inauterietako larunbata	Inauterietako asteartea	Hausterre-asteazkena
2012	Otsailak 18	Otsailak 21	Otsailak 22
2013	Otsailak 9	Otsailak 12	Otsailak 13
2014	Martxoak 1	Martxoak 4	Martxoak 5
2015	Otsailak 14	Otsailak 17	Otsailak 18

# MUSIKA ESTILOAK



**ibaibe**

**Ibaibe**  
HERRI IKASTETXEA